


# ELURRA GALTZA MOTZETAN

---

GABRIEL KORTA





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

GABRIEL KORTA

# elurra galtza motzetan

Ilustrazioak: Gabriel Korta Rekarte

Bakarrik?

Liburu hau kaleratu dut, lagun jator baten laguntzarekin.  
Ez dut bere laguntza nahikoa eskertuko.  
Bere izena da: iñaki Bastarrika.  
idazlea, kazetaria, itzultzailea... Beste zenbait gauzen artean.  
Bera da liburu honen editorea.

# AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Gabriel Korta – 1951

NOREN BORONDATEA?

EGOERA

MAITATZEKO GARAIA

UDA

HANDIA DA MUNDUA

KOKAKOLAK AGINTZEN DU

TRAFIKARIAK

ASKATZAILEAK?

NORMANDIAKO BATAILAN

SANTA AGEDAN EGINA

BADAGO HARITZ BAT

LAGUN MAITEAK

OTSO ZAHAR BAT

BAKARDADEA

LAGUNKIDE MAITEAK

EZAGUTZEN DUT

AIPATZEAGATIK

EZ DA DENA TXARRA IZAN

KUZKURTURIK

NON GALTZEN ZARETE?

ZIRTZILAK

GORROTOAREN EGUNA

MADARIKATUA

EKAITZAK AMAITZEN DIRA

ZU ETERNALA ZARA  
BEHAR ZAITUZTET  
BEHAR DITUT BESTEAK  
ARIMA URRUNAK  
HERIOTZAREN ATARIAN  
GOI MAILAKO MAITASUNA  
URRIKALGARRIA  
MAITASUNARI EMANAK  
MAITASUNA  
ZURI  
GAUR  
PATXADAN ETA PAKEAN BIZI  
EDERRA DA ASKATASUNA  
EROTASUNA EZ DA KUTSAGARRIA ETA GIZATIARRA DA  
HERIOTZAREN PENDULOA BEZALA  
EROAK ULERTZEN DU  
SORMENARI LOTUTA NAGO  
ESAIEZU  
KALEAN ENTZUNA  
HIRIAN  
AGIAN DENA ESANA DAGO  
EDERTASUNA BEDEREN  
KOLDARKERIA  
DENA HASTEN DA  
PILTZARREN IDEOLOGIA  
ARIMAREN EGOERA BAT  
EZ DUT LEHIA MAITE

BAZIRUDIEN  
MISTERIO TENTAGARRIA  
BORONDATE ONEKO PERTSONAK  
DESERTUKO HAIZEA OINETAN  
KONTUZKOA DA DENA  
UDABERRIA GERTU  
POETAREN JARRERA EZ DA ARRUNTA  
GURE DENBORA MUGATUA DA  
BIZITZAN DATZA GUZTIA  
NOLA MAITATU MISTERIO BAT?  
OTOI EGIN DUT  
EZ DUT ZURE ARGI ITSUKORRA IKUSIKO  
AMARI  
DENA BUKATZEN DA  
EZPAINETAN DARAMAT  
ELURRA GALTZA MOTZETAN  
ELKARRETARATZEKO GOGOZ BETERIK  
BELDURREZ BIZI ZEN  
NIRE ONDAREA  
SORMENAREN EREMUA  
UNIBERTSOA DELA ETA...  
ZEHARO EROTUTA  
BEKAIZKERIAZ BEGIRATU  
ZAPATAK  
OI! ARIMA SENTIBERAK  
HITZA  
ESADAZUE

KONTZIENTZIAZ JABETU GARA  
GIZAKIA ANITZA DA  
BIZITZA GOGORRA DA  
BIHOTZEKO EMAKUMEA  
HAIZE ON BAT  
SUGEA BEZALA  
BETIRAKO ZELA IRUDITZEN ZITZ AidAN  
GOGORRA DA BAKARDADEA  
ERREMEDIORIK GABE  
ZALANTZAN JARRI  
EZ HASERRETU MUNDUAREKIN  
JOAN ZARA  
HEMEN GAUDE  
LAINOEN TARTETIK  
BERANDU DA  
ISILIK DAGO MAKINA  
DESIRATZEN DUGU  
GELTOKIAN  
ZALDIA TROSTAN  
HITZ HAUTSIK  
MUNDUA ZABALA DA  
BEHARRAK NAHASI GINTUEN  
NEGUAN ELURRA  
ZER DA POETA IZATEA?

Gabriel Korta, existitu [ez] zen olerkaria

## Hitzaurrea

“Elurra galtza motzetan” bosgarren liburua du Gabriel Kortak (Donostia, 1951-Errenteria, 2020). Aurretik, “Laugarrenak lau” liburukian, lehen lau liburuak bildu zituen, orrazturik. Poesiari emana bizi izan da beti, hori izan du ardatz bizitzan, mendizaleak mendia bezala. Azken hogei urteotako liburuak berak eman ditu argitara, ahalegin handi bat eginda.

“Elurra galtza motzetan” liburutik aipu batzuk atera ditugu, liburu honen berri pixka bat emango dutelakoan. Olerkariak badu kezkarik munduan gertatzen diren gertaera mingarriez. Horregatik dio: “Munduaren egoerak, urratzen dit bihotza, ez da nire gogoa...”. Baina aldi berean, badaki bizi egin behar dela, eta maitatu: “Orain da maitatzeko garaia”. Izan ere, munduan pertsona guztiak antzekoak dira haren iritziz: “Pertsonen ekintzak unibertsalak dira”. Eritasunak eraginda Kortak izan du goibelaldi eta ilunaldirik, baina atzean utzi nahi ditu, aurrera egin nahi du: “Ahaztu nahi dut, maitatu nahi dudalako”. Izan ere, besteen beharra du, gizaki orok bezala: “Oi, nola behar ditudan besteak...”. Bizitzaz egindako hausnarketen artean hau dago: “Bizitza gertatu egiten da, azkenean berak arrazoia du beti”. Hortaz, etsipenez hartu behar dugu datorrena, baina kontsolamendu batekin: “Infernuan ere, ez da dena txarra.

Badakit zer den zoriona”. Infernuaren ahaidea dateke sasia ere, surik gabekoa: “Sasietan ez dago lorerik, baina hipokresiarik ere ez”. Poetak, bere bakardadean, badaki bazterrean egoteak duen ona, bakea. Han ere bizirik senti daiteke, eta bizitza goratu: “Gaur begiratu dena begiak zabaldurik; miretsi dena, maitatu bizitzaren miraria”. Mirari hori behatzeko patxada dugu beharrezko: “Dena presaka eta orain nahi dugu”. Presaka bagabiltza, nola hausnartu transzendentziaz, haraindiaz? “Ez dakit nola sortu den guzti hau, baina hemen nago”. Bai, hemen gaude, Kortaren liburua irakurtzeko prest, ondoren nork bere ondorioak ateratzeko. “Bakoitzak bere bidea egin behar du” esaten digu olerkariak. Bai, Gabriel, hala da, bakoitzak bere bidea egin behar du. Olerkia filosofiarekin nahastua dator hemen, irakurketa bizipenarekin, iluna argiarekin. Goza liburuaz, irakurle.



Gabriel Korta – 1951

Norbera da bere bizitzaren moldekatzailea. aske naiz, eta ni naiz, nire bizitzaren arduradun bakarra; eta jakin, edo badakizue, askatasunaren prezioa, bakardadea dela.

Hori estigmarena kontuan hartu gabe. zeren bakardadea ez dut nik beti bilatzen.

Ze gaiztoak zareten batzuek psikiatritzatuekin...! Sabelek haurrak dakartzate; gizatiarra da, Poesia arimaren egoera bat da; jarrera bat.

Izateko modu bat. Poetak hizkuntzarekin, egiten du lan. Parnasoa ez da nire mendia. nire mendia muino txiki bat da.

Maite ditut beste poetak, maitasunak egiten du bihotza. artxiboetan katoliko, bizitzan bilatzaile. aspaldi erabaki nuen; nire bizitza, nire jarrera bizitzan, poetarena izango zela; eta utopia zen osorik, erabaki nuena.

Ez naiz maitasun eskale bat. maitasuna ez da eskatzen, eman egiten da.

Orain arte lau liburu kaleratu ditut; eta laugarrenean, lau liburuak daude: ISILETIK, OKARANAK, HARRI HAUTSIK, eta azkenik, LAUGARRENAK LAU.

ELURRA GALTZA MOTZETAN, bosgarren liburua da. ez dakit zein izango den bere bidea...

Poetak hizkuntzarekin sortzen du artea.

## NOREN BORONDATEA?

Lainoen borondatea;  
euria da,  
eta gu, haserre berarekin.

Baina poeta maitea  
malenkoniaz beterik gaudenean,  
eta kopeta, edo lokia leihoko kristalean dugularik; maiz diogu:  
kalean euria ari du...!

orain euria ari du,  
eta basoko zaldiaren begietan:  
mandeuliak ugari.  
euriak uxatuko ditu;  
eta zaldiak burua, astinduko du pozez beterik;  
eskerrak eman ez euriari.

## EGOERA

munduaren egoerak,  
urratzen dit bihotza;  
ez da nire gogoa,  
baina errealitatea gogorra da.

Baikorra izan nahi nuke...

Jakin nahi dut, nora garamatzazuen!  
nik itzuli nahi dut pikondoaren gerizpera,  
epikuroren lorategira.  
estigmak askatasuna murrizten du,  
harreman ezin ikusizkoak bihurtzen.  
Baina nire zokolutik diot:  
ezin dudala saihestu, munduaren egoera.

## MAITATZEKO GARAIA

Magnolioak zetarizko eskuetan;  
zertarako madarikatu oraina?  
Zorionekoak maitatzen dutenak,  
zeren ez baitaude inoiz bakarrik.  
Orain da maitatzeko garaia.

Tximua pentsalari bihurtu zen;  
zeruak txunditu zuen;  
unibertsoak liluratu zuen;  
hostoak baztertu zituenean.


Maite dut gaua,  
maite dut eguna,  
maite dut;  
zure begietako tristura.

## UDA

Garaia da,  
eta jada;  
sorbeltzak txioka dabilta zeruan,  
zeru urdinean.  
udan sartuak gara,  
edertasunez beterik dago izadia.

Kantatu, abestu du zozoak  
uxatu dira mamuak.

Faunoa lorategian, dabil txirula jotzen;  
maiteminduentzako.  
Izpiritu askea, ez da txandala.  
Epikuroren lorategia joria da.  
Jan dezagun sagarrondo honetatik...!



## HANDIA DA MUNDUA

Bide hautsez beteetan zehar,  
handia da mundua;  
hainbeste bide daude...!  
Handia da.  
Gehienok askatasuna, eta berdintasuna  
nahi dugu.  
Baina egunerokotasunak irensten gaitu.  
Pertsonen ekintzak,  
unibertsalak dira...  
Globalizaturik gaude,  
etorkizunean bizi gara.  
Asko aldatu da mundua...  
Hiri txiki hau  
mundu bat da.  
Ez galdu, nekez irabazi genuena.

## KOKAKOLAK AGINTZEN DU

Eskasian bizi gara  
hori ez da berria.

Eskasian biziko gara  
neguan estu gerria.

Kokakolak agintzen  
duela hori da egia.

## TRAFIKARIAK

Zuen boterea indarkeria hutsa da;  
arma trafikariak;  
eroso zabiltzate munduan;  
handia da zuen boterea,  
handia da zuen merkatua.  
Baina egun batean, eroriko da dena;  
orduan pozez beterik, dantza egingo dut,  
eta igurtziko ditut eskuak;  
jakintsu bat bezala;  
zeren azkenik gizadia,  
aske izango da.



## ASKATZAILEAK?

Bagdaden sartu zineten gaizkileak,  
zuen filmetan bezala.  
Mertzenariak; atzerriko herri batean,  
zuen herritik hain urrun,  
zuen inperioa indartzeko.  
Bonba atomikoa, aitzakiz jarri eta,  
petrolio helburu.  
Bagdaden sartu ziren mertzenariak...  
Jendea hil, emakumeak bortxatu,  
Jainkoaren izenean;  
lapurtu, hiria erre.  
Infernu bat sortu; hori da guztia.

Irakiarrei zerien justizia.



## NORMANDIAKO BATAILAN

Egia da

Normandiako batailan

gizon askok galdu zutela bizia,

proletarioak gehienak,

ez ziren mertzenarioak;

eramanak izan ziren,

bertan hil zirenak:

harginak

nekazariak

galdaragileak

argiketariak

arotzak

fresatzaileak.

Hau da:

herri xumea.

## SANTA AGEDAN EGINA

Banoa nire burua jasotzen  
madarikazio baten  
ondorioetatik ateratzen  
poema aleak josten  
nire poemarioa konposatzen.  
Zozo bat dabil basoan  
txantxangorria leihoan;  
bere hamar begiekin.  
Ahaztu nahi dut,  
maitatu nahi dudalako.

## BADAGO HARITZ BAT

Bideak narama  
nire mendira,  
badago haritz bat;  
lore txiki  
eta ezkurren artean,  
bere gerizpea  
ez da niretzako soilik.  
Oi! nola behar ditudan besteak...

## LAGUN MAITEAK

Begirunezkoa izan dadila topaketa.

Lagun maiteak:

lorategi honetan,

bekaizkeriak ez dezala aterperik izan;

garbia izan dadila elkarretaratzea.

gauza bat ikasi dut, eta pozik nago;

mundua herri handi bat dela,

eta kolore anitzetakoak garela.

Bizitza gertatu egiten da;

azkenean berak arrazoia du beti.

Ezpata baina hobea lorea.

nik krabelinak maite ditut...!

## OTSO ZAHAR BAT

Esan nizuen, otso zaharra eta bakartia nintzela  
zaharra eta bakartia;  
baina maite dut taldea  
60 urte ditut,  
maitatzeko denborak irentsi nau,  
konturatu gabe,  
atzo gaztea nintzen.  
Hausnartzen dut iragana;  
ez naiz moralista, baina benetako maitasuna,  
ez da erosten.

## BAKARDADEA

Bilatzen dut nire txokoa  
txoriek beren kabiak bezala  
bakarrik egon nahi dudanean.

Baina era berean  
bilatzen dut jendea.  
Berotasuna,  
lagunartea  
Epikuroren lorategia.  
Bakardadea beti ez da nire borondatea.

Atzerria da mundua  
zokulu honetatik ikusita.  
Tristeak dira jenderik gabeko plazak...  
Maite dut lagunartea,  
eta elkarretaratzea.  
Maite ditut kale jendetsuak.  
Zaila da maitatzea.

## LAGUNKIDE MAITEAK

Bakarrik nator  
baina ez dut bakarrik egin bidea  
lagunak izan ditut gogoan  
berriro ikusiko ez ditudanak gehienak.

Hutsik nator  
ez dut ezer ekarri  
hitzen denbora delako  
oroimen onena  
lagunkideen artean.

Bakarrik utzi gaituzue  
garaia baino lehenago  
zuentzako laudorioak  
eta lore ederrak.

Iraunkorrek zarete oroimenean.



## EZAGUTZEN DUT

Izpirituaren mina  
malenkonia gazi-geza da,  
tristezia goxoa  
sakongunea oinazea.

Ezagutzen dut erotasuna  
badakit zer den paranoia  
badakit zer den sakongunea.

Bizipenak jada  
erotasuna adiskide  
bilakatu du.

## AIPATZEAGATIK

Geltokiko banku zahar batean,  
eserita nengoelarik;  
begiak lurrera begira  
bapatean lagun zahar batekin egin nuen topo.  
Bera Bilbotik zetorren  
ni berriz Donostiatik.  
Goizak horrela izan nahi zuen;  
eskizofrenia aipatu nuenean bakarrik geratu nintzen.  
Asko maite nuen...

## EZ DA DENA TXARRA IZAN

Ez da diruagatik,  
maitasunagatik ere ez.  
Konturatu gabe erre egin dut,  
nire gaztetasuna psikiatria dela medio;  
baina maite dut.  
Infernuan ere, ez da dena txarra.

Badakit zer den zoriona.

## KUZKURTURIK

Kuzkurtuen itzalik gabe  
ate nagusitik sartu,

eta atera nahi dugu.

Ez gara gaizkileak,

erotzea gaixotzea da.

Zigortzen den gaixotasun bakarra.

## NON GALTZEN ZARETE?

Ez dakit non geratzen diren  
pertsonek baloreak,  
duintasuna galtzen denean...

Izar herratuak,  
karriletako erregeak.  
Bidaiari isilak.

## ZIRTZILAK

Alde orotarik zirtzila dario;  
zirtzilduen ideologia, pobrezia.  
Hain kantatua,  
jende urriak garria;  
eskuak gorantz jarriak  
limosna baten eske.

## GORROTOAREN EGUNA

Poema hau  
sortzen ez badut;

gaur ez dudala jan  
sentituko dut,  
zazpigarren elurte hau  
kuku-elurra lagun  
gorrotoarena da.

Beltza  
aspaldian  
sentitu ez nuen sentimendua.

Gorrotoak  
itsutu baitu nire bihotza,  
eta ezintasunez beterik,  
estutu ditut ukabilak,  
ikusi baitut  
nola ezkerrekoak direla  
esaten duten jende faltsuek  
eta hipokritek,  
bultzaka  
tabernatik bota duten  
behartsu koitadu bat.

## MADARIKATUA

Ez nuen nik bilatu  
baina erotasunak,  
eraman ninduen  
uholdeak dena  
eramaten duen bezala.

Madarikatua  
erremediorik gabe madarikatua,  
eromena ez da barkatzen  
besteek pentsatzen dutelako  
sano daudela.

Eroaren hitzak ez du balio.  
Ospe txarra dut,  
baina aske naiz.  
Maite dudalako nire burua;  
erotu egin nintzen,  
hori da guztia.



## EKAITZAK AMAITZEN DIRA

Ezerk betetzen ez zaituenean,  
alegia bizitza inertzia bihurtzen denean;  
orduak zure baitan bildu.  
Pentsatu aurrera zoazela,  
eta zoriona mito bat dela  
beti irauten ez duena.  
Pentsatu bizitza bakarrik dagoela;  
bizitzeko bagara...  
Maitatu bizitza;  
maiz gauza xumeenak pizten gaitu.  
Izan haurrak bezala,  
izan apalak.  
Hilerrietako elurra bezala.

## ZU ETERNALA ZARA

Sinisten dut  
zerbait izatekotan  
Jainkoa deitzen diogun hori;  
eternala eta mugagabea dela.  
Sinisten dut ezerezetik  
ez dela ezer sortzen,  
ez dakit zer den Bera.  
Denok gaude unibertso honetan,  
baina gu ez gara eternalak.

## BEHAR ZAITUZTET

Behar ditut besteak  
arrainak ura bezala;  
besteak dira nire ispilu,  
besteak dira leuntzen nautenak,  
besteak dira nire zalantzen eragileak.

## BEHAR DITUT BESTEAK

Ez dago jenderik  
tristeak dira jenderik gabeko plazak.  
Eguzkia aurpegian  
gogoko dut une hau,  
neguko eguzki goxoa,  
eguzkiaren keinu luzea.  
Sasietan ez dago lorerik.  
Baina hipokresiarik ere ez.

## ARIMA URRUNAK

Zebrabideetako arima urrunak  
hiritako biztanleak;  
bakarrik gaude jendetzan.


Supergizaki bat  
izan behar du batek;  
inolako maitasunik gabe bizitzeko.

Bero bila, irten naiz kalera,  
eta hotzik itzuli naiz;  
poesiak eman dit atsedena.

Zerbait hautsi da,  
nire bihotzean.

## HERIOTZAREN ATARIAN

Behar ditut besteak,  
ez baninduzue ezagutu  
bakarrik geratuko nintzatekeen  
heriotzaren atarian,  
hotzak hiltzen,  
zeren besteak ez badaude:  
bizitzak ez du zentzurik,  
behar ditut besteak.



## GOI MAILAKO MAITASUNA

Nola kimuak lorea  
neska lagunak maitasuna.  
Gehien maitatu nuen emakumeak,  
ezin du eskuratu;  
aske den bihotza.  
Adina, maitatzeko bazina...  
ez duzu ulertu,  
nire maitasunaren grina.  
Udazkenean bizi da nire bihotza.  
Hain ulerkorra beharko luke izan,  
nirekin etorriko litzatekeen emakumeak..  
Goi mailako pertsona  
sentibera  
anitz sentibera.

## URRIKALGARRIA

Gizon hark  
errukarri itxura zuen;  
benetako disidentearena.  
Bere etxeak,  
leizezuloa zirudien,  
eta han bizi zen pakean  
natura maitasunez trataturik.

Amaraunez beteta zeuzkan gelak.  
Eta amaraun haietan izugarrizko  
armiarma beltzak bizi ziren.

Berak nahi zuen moduan bizitzeagatik  
ez zen onartua.  
Batzuek bera pasatzerakoan  
gezur-eztulak egiten zituzten,  
edo listua botatzen zuten.  
Haurrek iseka egiten zioten,  
eta harriak bota.  
Badator gure arlotea esanez...

Zakurrak zaunka egiten zioten  
eta berak mindurik  
bide zaharra hartzen zuen  
koitadu bat bezala.

Gaiztoa zen mundua berarekin,  
zapatak zimurrez beterik zeuzkan;  
hausteko bidean.  
Zaborretan egoteko egokiak.  
Bere jazkera ere ez zen  
batere arrunta;  
modaz kanpokoak ziren  
arropa guztiak.



## MAITASUNARI EMANAK

Maitasunari emanak maitea,  
bestela ez du merezi.

Hemen nauzu  
nahi duzun guztirako jarria.  
Maitasunean baldin bada,  
txantaiarik gabe.

## MAITASUNA

Maitaleek musuak landatzen dituzte;  
musu horietatik jaiotzen dira loreak.  
Maitasunaren kalitatea adierazten dute...  
Loreak politak dira, baina musu batzuk  
pozoiturik daude.  
Musu horietatik, belar txarrak jaiotzen dira.

Mitoak sortu ditugu;  
hainbeste kantatu da maitasuna...  
Hainbeste sexua.  
Maitasuna aipamen zaila da;  
eta hainbeste txandala daude...

## ZURI

Banandu ginen,  
amildegi bat utzirik tartean;  
elkar ezagutu ez bagina bezala,  
ahazturik dago azken musua.

Urruntasuneko argia, zu zara, nire itxaropena...

Patetikoa izan zen,  
Santa agedako patioan ikusi, eta entzun nuena;  
bisitariak, kantari eta dantzari psikiatritzatuekin;  
txaranga batek lagunduta.

Goiko zeruak gorde dezala,  
luzaro nire arima...  
Kantak zioen.

## GAUR

Gaur begiratu dena  
begiak zabaldurik;  
miretsi dena,  
maitatu bizitzaren miraria.  
Miretsi, miretsi dena,  
azkeneko eguna izango balitz bezala.  
Ez zara damutuko...  
Begira tximeleta hori,  
azaroan gaude,  
eta bizi nahi du;  
tximeleten bizitza, laburra izan arren...  
Bizitza da daukagun gauza bakarra;  
ezer gabe joango gara.  
Maitatu gaur, posible bada.  
Bilatu zure bakea,  
agian bihar ezingo duzu.  
Poema hau guztiena da.

## PATXADAN ETA PAKEAN BIZI


Esan nahi nizkizueke  
barre egiteko poemak.

Egin barre bihotzez...

Baina zorionak gutxi irauten du  
batzuetan bakarrik gertatzen da.  
Presak eta gorazaletasunak,  
abere arriskutsu bihurtzen gaituzte,  
mundu zibilizatua deitzen diogun hori  
eszentrikoa iruditzen zait.

Non dago atzoko patxada, eta atsedena?

Dena presaka eta orain nahi dugu.



## EDERRA DA ASKATASUNA

Sarrailek maite dute herdoila;  
zein ederra den askatasuna libertari!  
Txintxarriaren jaia dakart eskuetan,  
preso batek ihes egin duelako.  
Poliziak bere bila dabilta artadian;  
baina ez dute sekula harrapatuko,  
gaua dauka bere alde.

## EROTASUNA EZ DA KUTSAGARRIA ETA GIZATIARRA DA

Eskizofrenia kimu bat udaberrian  
ahotsak entzumenean;  
batzuek ezargarriak  
besteak iraingarriak  
beldurgarriak,  
eta goxoak.  
Behartasunaren amildegiak  
badauka zer ikusia erotasunarekin.  
Gehienak  
txiroak dira,  
nahiz aberatsak ere erotu.

Ur garbiak nahi ditugunok,  
denok askatasuna nahi dugu.  
Ez dute denek ulertzen...

Erotasunak nire bizitza mugatu du.  
Aipatu nahi dut bereziki:  
Nietzsche, gontz handi hori,  
europar handi bat.  
Soseguaren itzalez beterik.

## HERIOTZAREN PENDULOA BEZALA

Hondoa jo nuen,  
gizatiarra eta arrunta da;  
esan nahi dizuet, zeren:  
beheraldi sakona pairatu nuen.

Desiratzen nuen:  
zuhaitz batetik  
nire burua zintzilikatzea.  
Sufrimendu hura, betirako amai zedin.



## EROAK ULERTZEN DU

Eroak izan dezake,  
halako agerpen biblikoaren itxura  
edo bapateko argitasuna.  
Baina eroak ulertzen du;  
ez da hain eroa,  
ez da txorrea.  
Soilik desberdina da,  
ez da onartua, eroa izateagatik.  
Horregatik batzuek,  
nahiago dute psikiatrikoa;  
bertan seguru sentitzen direlako.  
Eroak maite du bakardadea,  
berak hautatzen duenean.

## SORMENARI LOTUTA NAGO

Baditut desioak  
baina handikeriarik gabe;  
poseditzeak ez nau zoriontsu egiten.  
Sormenari lotuta nago;  
horrelakoa da nire bizitza.  
Ez dut tenplua gurutzatzen,  
ez dut erlijiorik,  
baina bai kontzientzia  
eta sinismenak.

## ESAIEZU

Esaiezu lagun  
zenbat lan egin behar den,  
liburu bat egiteko.  
Sugeak bezala,  
larru berri bat  
behar duzulako,  
jarraitzeko arima elikatzeko,  
liburu berria,  
zailagoa dela konturatzeko.

## KALEAN ENTZUNA

Kalean entzundako  
gertakizun bat:  
oihanean sartuak ziren  
ehiztariak, oihan ilunean.  
Tximuak saltoka zebiltzan  
zuhaitzetan.  
ehiztari batek agerian,  
zegoen tximu bati;  
tiro egin zion,  
eta tximua zauriturik,  
balak eman ziolako bete-betean,  
lurrera erori zen.  
Eta tximua nigarrez, malko tanta lodiak  
begietatik irten zitzaizkion..  
Tximuak oihaneko belar batzuekin estali zuen zauria.  
Baina ehiztaria gizon bat zen,  
eta urrikaldu gabe, kulatarekin  
buruan jo zion, eta azkenik tiro hilkor batekin,  
tximua akabatu zuen.  
Oihana isildu zen.

## HIRIAN

Bapatean  
itzali dira  
hiriko argiak.  
Hasi da eguna...  
Kalea presaka doa  
goizaren zulotik.  
Eta zebrabidean  
bi gizon  
ikusi ditut  
elkarri  
barkamena eskatzen  
estropezu egiteagatik.

## AGIAN DENA ESANA DAGO

Gehiena esana dago,  
agian esateko modua aldatzen da soilik,  
hainbeste idatzi du gizakiak...  
Izarpean,  
zein ez da liluratu?  
Zein ez da maitasunarekin liluratu?  
Nork ez du ikusi zelaietan itsaso bat?  
Hainbeste gauza eder daude kantatzeko...

Poeta:

ez al duzu emakume baten sabelean eskua jarri?  
Eta asto bat jaiotzen ikusi?  
Baina gehiena esana dago.  
Ikusi dugun guztia berdin sentitu dugu;  
baina beste modu batean adierazi.  
Batuetan ikusi,  
sentitu eta isildu,  
poemak iraun dezan.

## EDERTASUNA BEDEREN

Poesiaren zelaietatik  
belar xume bat  
besterik ez da geratzen  
haizeak makurtzen duen belarra.  
Eta belar hori,  
besterik ez bada;  
belar hori da  
nire poema.  
Eta dirau;  
nahiz uda  
nahiz negu  
poemak dirau.  
Hilkorra izatearekin konformatzen naiz;  
sentimendu tragikorik gabe.

## KOLDARKERIA

Agian askatasuna  
belardian dabilen  
arratsaldeko haizea bezala;  
jostagarria eta iheskorra delako,  
errotu gabea.  
Betidanik nik ere  
izan dut  
ihes egiteko joera.

Alaitsu  
txistuka  
makila bat,  
motxila bat bizkarrean;  
bideetako hautsa harrotzen  
amestu nuen  
nire askatasuna.  
Baina koldarra naiz.



## DENA HASTEN DA

Nire izaera paketsua da;  
maitasunak irabazi dio gorrotoari.  
Orain dena desberdina da.  
Nire pausoak;  
arima herratu batenak dira.  
Dena hasten da,  
borondate onak:  
bihotzeko lorategian,  
atsedena hartzen duenean.

## PILTZARREN IDEOLOGIA

Entzun iezadazue;  
handia da gizakiaren oinazea  
krudelkerian bizi gara,  
eskasian;  
betirako dirudien  
madarikazioan.  
Entzun txiroen kantua  
neguko piltzarren oihua.  
Hor dago lunpena  
karitatearen menpe,  
zokoluetan bizirik.

## ARIMAREN EGOERA BAT

Poesia arimaren egoera bat da,  
askok bizi duten egoera.

Irakurle maiteak:

baina gutxi batzuek

garatzen duten egoera.

Nire lagunak poesia zaleak dira

eta batzuek poetak;

iturri anitzetatik irakurri duten poetak.

## EZ DUT LEHIA MAITE

Parnasoa ez aipatu  
ez da nire mendia  
ez dut lehia maite.  
Poeta maiteok,  
mundu materialista honetan;  
txori bat maite dugu, bereziki denok.  
Kukua.

## KRISTO HILKO DUTE

Mundu zabaleko bideak,  
ibiltarien pozgarri;  
loreak daude ertzetan.  
Bakuntasunez beterik  
ibiltaria pozez doa,  
eta erramu haizeak  
gogoraziko dio berriro  
Kristo gurutzatuko dutela.

## BEGIRUNEZKO HARREMANAK

Eskizofrenia loratu zenetik  
nire bizitza betirako  
aldatu zen.

Bizitzaren erdia kasik,  
psikiatrian sartuta egin dut.  
Begirunezko harremanak nahi ditut...  
Norbaiti begirunea galtzen zaionean  
askatasuna amaitzen da.

## BAZIRUDIEN

Bazirudien  
dena bukatu zela;  
eta larrosak bezala  
poesiak argia ikusi nahi du;  
ezin du geratu,  
edertasunarekin egina du lotura,  
zer naiz sortzen ez badut?

## MISTERIO TENTAGARRIA

Erabat isiletik  
itxaropenez beterik...

Oi! misterio hori  
misterio tentagarria  
bakarrik sentitzen garenontzat.  
Norbaitek,  
edo zerbaitek,  
egin duela guzti hau.  
Hori pentsatzea...  
Baina hala ere misterio bat da.  
Ezerezetik sortzea,  
zerbait sortzea;  
posible ez delako.

Oi! hori, misterio hori  
bakarrik sentitzen garenontzat,  
misterio tentagarri hori...



## BORONDATE ONEKO PERTSONAK

Borondate oneko pertsonak  
lurra sareratzen dute  
bizitzaren alde daude.  
Horrek asko pozten nau.  
Baina gehiengoa beti  
ekonomiaren menpe.  
Lukurreria,  
eskasia  
horregatik poetak hartu zuen  
emigratzaileen ontzia;  
eta nor zen  
galdetu ziotenean...  
ez zekiela erantzun zuen.

## DESERTUKO HAIZEA OINETAN

Nire bizitzaren pausoak  
bizitzarekin doaz;  
desertuko haizea oinetan  
poemak hausnartzen bidean.

Zer garen jakitea ez da erraza;  
nik nire bizitzan  
kontraesan asko aurkitzen ditut.  
Poesia ez da erraza  
ez da erraza poeta izatea.

Nire kaia  
nire kantuen sorterrria  
nire nahiaren azken hatsa,  
lagun leiala  
tristeziaren kabia  
pozaren argia  
bizitzeko zergatikoa  
nire ezkutalekua  
poesia.

## KONTUZKOA DA DENA

Behar dut gain bateko ikuspegia  
sentitu bidean utzi ditudala  
nire kezka;  
gizatiarrak eta arruntak, oso gizatiarrak.  
Urak edango ninduke  
nora jo jakingo ez banu...  
Beharrezkoa zait poesia  
horregatik idazten dut  
eta mantentzen dut bakartiaren sugarra.  
Kontuzkoa da dena;  
eta ihesi doa musika  
bihotzaren bidezidor batetik.



## UDABERRIA GERTU

Elurraren poema zuria,  
oinezkoen arrastoak ezabaturik.  
Urruntasunean ikusten dira;  
mendiak elur motzetan,  
eta arbolak, eta zuhaitzak ere, kimuz beterik,  
txorien denbora da, itzulera, kuku-elurraren garaia.  
Lehendabiziko loreak ere,  
hasi dira loratzen.

Munduari uko egin gabe,  
munduarekin pakean;  
arrenkuraz eta gorrotoz, bete gabe. Zentzurik bai,  
bestela bizitzak?  
Maite dut!  
Nire askatasunaren jabe naiz.  
Maitasunez beteriko, etorkizuna...

Artxiboetan katoliko, bizitzan bilatzaile.

Aspaldi erabaki nuen, nire bizitza,  
nire jarrera bizitzan;  
poetarena izango zela  
nahiz inork ulertu ez...  
Nire orakulua burukia da,  
eta zeruari eskatzen diodana da,  
nire borondatearen indarra, indartu dezala,  
posible bada, aurrera egiteko...  
Maitasunak soilik ematen dit zoriona, gizadia maitatzeak.

Askatasuna neurri batean, bakardadea da.  
Eta gorrotoa gaizki doakio bakartiari.  
Askatasuna erantzunkizun eder bat iruditzen zait.

## POETAREN JARRERA EZ DA ARRUNTA

Zer egin behar du poeta batek?  
Poeta batek idatzi egin behar du, batez ere.  
Poetak gizaki arruntak dira.  
Baina beraien jarrera ez da arrunta.  
Niri artistak iruditzen zaizkit.  
Umilak, alfonbrarik gabeak.  
Baina batez ere, aske izan behar dute.

## GURE DENBORA MUGATUA DA

Ezin dugu jakin  
misterioak gordetzen duena;  
ez dugu ulertuko,  
nola bete den huts handi hau.  
Ulertezina guretzako  
neurria eta denborarena;  
definitu daiteke, baina ulertu ez.  
Mugaketa guztiek espazioan,  
mugaketa berriak sortzen dituzte;  
espazioa amaigabea da.  
Denbora amaigabea du betikotasunak.

Poetok maite dugu mundua,  
maite dugu bizitza,  
maiz izugarria;  
ederra da dena.  
Bere lorian  
koroatzen dugu  
unibertsoa.  
Norbaitek esango al dit  
nola bete den huts handi hau?  
Alegia nola sortu den,  
halako edertasuna,  
eta halako handitasuna?

## BIZITZAN DATZA GUZTIA

Nire bidea,  
gizaki guztion bidea da;  
nahiz, maiz madarikatu.  
Begira gizakiaren edertasuna.

Konortea galdu gabe  
egiaren eremuan;  
bizitzan datza guztia.

Hiltzen naizenean:  
ez dut ezer ikusiko  
ez dut ezer entzungo  
usnatu edo ukitu  
ezta ere dastatuko  
hila egongo naiz  
ez dut ezer sentituko  
ez naiz berriro esnatuko.

Betirako bizitzaren desioa;  
ahalmena,  
Jainkoaren pribilegioa da.  
Amets zahar bat,  
betirako bizi nahia  
amets gizatiar bat.

Ez dakit nola sortu den guzti hau;  
baina hemen nago.

## NOLA MAITATU MISTERIO BAT?

Ezin dut nire bizitza  
misterio baten menpe jarri.  
Nola maitatu ikusten ez dena;  
misterio bat dena?



## OTOI EGIN DUT

Dena ulertuko banu  
Jainkoa izango nintzateke.  
zerura hurbildu naiz,  
ni hurbiltzen naizen moduan;  
bakardade honek,  
gaua zauritzen duelako;  
eta otoi egin dut isilean.

Izarren hatsak,  
ihintzaz busti du dena;  
eta Madalenak  
oinutsik egin du bidea.

## EZ DUT ZURE ARGI ITSUKORRA IKUSIKO

Misterio bat zara;  
leize handi bat.  
zu amaigabea zara  
eta betiko.  
Zeruetako Jauna,  
baina gu ez.  
Ez da zure borondatea,  
munduaren egoera.  
Lotsa sentitzen dut,  
pertsonez izateagatik.  
Ez zara zu nire oinazearen auzia.

## AMARI

Bizitzeko banintzen  
Oi! zure sabela  
lehendabiziko etxe  
itsaso epela.  
Bizitzeko banintzen  
Oi! zure sabela.

Kukuak kantatu zuen  
ama ehortzi genuenean.

## DENA BUKATZEN DA

Denak dauka hasiera  
beti hasiera.

Denak dauka amaiera  
beti amaiera.

Infinituak eta betierekotasunak ezik...

Dena aldatzen da  
dena bukatzen da  
tragediarik gabe  
bukatzen da dena.

Hori da naturaren legea  
naturaren esentzia  
aldakortasuna.

Ez du inork irabazten  
betirako behintzat  
denbora kontua da dena.

Horregatik  
maite dut hainbeste askatasuna, libertari.

Ez dago heriotza ederrik  
bertan geratuko da dena.

Nire hezurrekin  
ez kartzelarik egin.  
Eta daudenak suntsitu  
utzi txoriei bertan kabiak egiten  
saihets hezurrekin.  
Txirulak egin besteekin...

## EZPAINETAN DARAMAT

Ezpainetan daramat  
hitz eder baten ardura;  
zetarizko korapiloa.  
Partzialak ditu fruituak.

## ELURRA GALTZA MOTZETAN

Poesiari loturik nago  
edertasuna maite dudalako;  
poesiaren leizean sartu nintzen.  
Aurtengo elurtea ere ez dut,  
inorekin partekatuko.  
Bakarrik nago.

## ELKARRETARATZEKO GOGOZ BETERIK


Hemen nago  
nire txokoan.  
Elkarretartzeko gogoz beterik.

Zabaldu langa hori, lainoetako jauna...!  
Natura maite dugu; natura gara, loreak bezala.

Eskuetan hartu dut,  
ezkur aletxo bat;  
iradokitzailea.  
Sormenaren hazi berezia.  
Oi! natura miresgarria...  
Zelai honetan libre,  
animaliak bezala, baina solasean;  
lagunak bezala.


Zabaldu langa hori  
lainoetako jauna.

Hemen gaude naturan elkaturik;  
oinetakoak belarrez beterik.



## BELDURREZ BIZI ZEN

Ate joka  
ibiltzen zen eskean;  
eskasian bizi zen.  
Behatz puntetan  
norbaitek ikusteko beldurrez,  
bai, beldurrez bizi zen.  
Beldurrez ematen zizkien txanponak dendariei,  
beti gastatzeko beldurrez.  
Hain zen txiroa...  
Lotsaturik ate joka,  
eskua luzatuz  
limosnatxo bat eskatzen  
Jainkoaren izenean.  
Horrela bizi zen  
errukiorren bihotz xamurrengandik  
jasotzen zuen diruarekin;  
ardoa eta ogia  
erosten zituen  
hilik aurkitu zuten  
atari batean.





## NIRE ONDAREA

Nire ondare xumea poesia da.  
Gainontzekoak  
objektuak ez dira asko.  
Poseditzeak  
ez nau zoriontsu egiten.  
Poesiarekin liluratuta nago.

## SORMENAREN EREMUA

Zigortuta nago  
poemak idaztera;  
ez da zigor txarra,  
okerragoak badaude.  
Gogorra da poeta izatea,  
gogorra den bezala,  
beste edozein lan.  
Ni, alde horretara  
okertu nintzen;  
ez naiz beste ezer,  
poeta soilik.

Baditut lagunak  
nahiz urruti,  
maitatua naiz,  
ez naiz kexu  
nire suerteagatik.  
Bide traketsetik  
lortu dut,  
poeta bat bezala bizi.

Zuek badakizue,  
zein gogorra den bizi.

Kontzientziarik ez bagenu...  
Baina kontzientziadunak gara.

Poetok, sormenaren eremuan bizi gara.

## UNIBERTSOA DELA ETA...

Hutsak ez du ezer sortzen  
betetzeko hutsunea baizik  
nola bete den dena izarrez  
unibertso hau, ez dakit.

## ZEHARO EROTUTA

Eta egun batean  
kalera irten zen,  
herriko plazara;  
ozenki oihuka  
IRAULTZA!  
IRAULTZA!  
Kale barruan gorde arte.  
Erotuta zeharo erotuta,  
eta korrika;  
IRAULTZA!  
IRAULTZA! Esanez  
bularra sutan zeramala.

## BEKAIZKERIAZ BEGIRATU

Bizitzako gauzarik ederrenak  
ezin ditut adierazi.

Lagun maiteak  
bekaizkeriaz begiratzen zaituztet.

Lagun sosegatuak  
maitatzeko eginak  
maite dut zuen izaera paketsua.

Mundua maitasunez begiratzen duzuen orori  
bekaizten natzaizue.

## ZAPATAK

Zapatak ibiltzeaz,  
gastatu egiten dira:  
zimurtu, eta azkenik hautsi.  
Balio dute musikarako,  
etzanda gaudenean,  
begiratzeko. Zigarreta puntak itzaltzeko.  
Zaborretan, noizbait ikusiak.  
Edo belarrez apainduak,  
belarra jango balute bezala.

## OI! ARIMA SENTIBERAK

Oi! arima sentiberak  
zatozte,  
gaztaroko  
kantuak  
kantu loratuak,  
odol beroaren  
arantzarik gabeko  
lore gorriak.  
Oi! arima sentiberak;  
maitasunaren alde  
egon beharrea  
kontra bazeundete;  
alegia  
belaunaldiak  
maitatu gabe,  
alperrik litzateke  
nire maitasuna.

## HITZA

Bizi hitza  
hitzen artean bizi  
hitzekin sortu  
poema bat:  
sentimenduak adierazi  
sakonak badira hobeto.

24 ordu irauten du egunak  
edozer gerta daiteke.  
Agian euritan  
ibili beharko dugu,  
edo itzala bilatzen;  
jendea da beti  
kalean dagoena.  
Adibidez gaur  
aterkia beharko dugu.  
Denok daramagu aterkia.  
Denontzako euria  
beharrezko ura  
lainoa gailurretan  
ibai oparoak.



## ESADAZUE

Esadazue zer egin nuen hain oker,  
bitza oraino, hain traketsa izateko?  
Ofizialki beti garapenik gabe.  
Nire ibilbidea, traketsa izan da.

## KONTZIENTZIAZ JABETU GARA

Begira komisario jauna:  
abertzaleengatik izango ez balitz  
iada ez genuke gure  
hizkuntza zaharra  
erabiltzeko aukerarik izango.  
Eta hizkuntzak dira,  
herrien ezaugarri nagusienak.  
Abertzaleei esker  
gure naziotasunaren  
kontzientziaz jabetu gara.  
Abertzale izatea, gauza naturala da;  
nola jakin herri bat garela, kontzientziarik  
ez bagenu?

## GIZAKIA ANITZA DA

Mundua ez dago geldirik  
nahasi egin gara  
kolore guztiak.  
Gizakia anitza da  
bakoitzak  
bere balioa  
erakusten du  
mundu asko daude  
mundu honetan.  
Beharrezkoaren bila  
gabiltza denak  
hori da guztia.

## BIZITZA GOGORRA DA

Zahartu egiten gara;  
ahalmenak galtzen ditugu.  
Bizitza gogorra da,  
esaten zuen beti  
poeta txiro hark;  
partitu zarete,  
beldurtzen gaituen  
bide horretatik.

## BIHOTZEKO EMAKUMEA

Non gordetzen zara baina,  
nire eskuek ez dute ikusten  
zure aurpegi zuria,  
bihotzeko emakumea.

Non zara baina,  
ametsetako basoan galdua?

## HAIZE ON BAT

Haize on batek jo du  
nire leihoan  
adiskidetasunari esker  
arantza lore bihurtuz.

## SUGEA BEZALA

Sugea azalberritzen den bezala;  
heriotzak bere sudurra  
erakusten duenean...  
Onena, sugeak egiten duena egitea:  
azalberritzea.

## BETIRAKO ZELA IRUDITZEN ZITZ AidAN

Gaztetasuna betirako zela  
iruditzen zitzaidan.


Ez zaituztet bekaizten  
egungo gazteak.

Nire atean udazkenak jo du.



## GOGORRA DA BAKARDADEA

Zein gogorra  
egiten zaidan bizitza,  
banatzen ez dudanean.  
Bakardadea nahi ez dudanean;  
gogorra da bakardadea.



## ERREMEDIORIK GABE

Patxadaz  
dramarik gabe  
galde egin diot  
nire gorputzari  
eta hutsuneak  
gizonen hitzak  
baztertu ditu.

Beldurra eman dit amildegiak.  
Horrelako sorkuntza perfektuak,  
azken hatsa eman behar duela jakiteak.  
Erremediorik gabe pentsatzeak.  
Baina horrela da;  
eskua luzatu bizitzari  
baina bizitzak ez du erantzuten  
heriotza da.

## ZALANTZAN JARRI

Aske denak  
arrazoiak eskatzen ditu,  
zalantzan jartzen ditu  
sinismenak eta ideologiak.  
Galdetu egiten du  
haurrak bezala;  
kontrastaketetan  
eta kontraesanetan  
mugitzen da.  
Izpiritu askearen  
izatea bakartia da.

## EZ HASERRETU MUNDUAREKIN

Nork daki  
harresi  
horien barnean  
dagoen oinazea  
mundua debekatzeagatik?

Nire txamarra  
bizkarrean zintzilik  
eta belartxo bat,  
ezpainetan nuelarik  
etxera bidean  
kanpaiak entzun nituen.  
Ez uko egin munduari...!

## JOAN ZARA

Joan zara, urruntasunez beterik  
ezer esan gabe, duintasunez.  
Joan zara, elurraren isiltasuna,  
guretzako utzirik.  
Zeren ez dugu berriro elkar ikusiko.  
Bizitzera kondenaturik gaude.  
Elurrak, estali du dena.  
Kolore zuria denontzat...  
Berdintasuna.  
Txoriek soilik utzi dituzte arrastoak;  
hilerriko pakea hautsi gabe.

## HEMEN GAUDE

Bizitza eman zaigu  
galdetu gabe.  
Maitatuak edo ez;  
hemen gaude  
maiz nora goazen jakin gabe.  
Denon amaiera jakin arren.  
Bakoitzak bere bidea egin behar du...  
Ekaitzetan babestu;  
aurrera egin.  
Bide zidor bat sortu.

Baina ez gara denak berdinak...!

## LAINOEN TARTETIK

Eguzkiari zoriona lapurtu...  
Eguzkiaren argia iragazten da  
lainoen tartetik.  
(ederra benetan)  
natura apala da,  
ezer eskatu gabe  
beti ematen du.  
Euria edo eguzkia  
eten gabe.  
Beti desberdina da zerua,  
baieztatzen dut, horrela dela.

## BERANDU DA

Egunaren amaieran bakardadea  
eguna luzea,  
Osatu gabeko eguna.  
Inor ez etxean;  
berotasun eza,  
bakardadea  
bakardade osoa.  
Berandu emakume bat,  
lagun bezala izateko.  
Ni naiz  
60 urteko poeta bat;  
altxorrik handiena bizitza da;  
partekatua bada hobe.  
Maite dut bizitza,  
bere urtaro guztiekin.  
Esan nahiko nituzkeen gauzak  
esanak daude.  
Ez naizelako,  
poeta bakarra.



## ISILIK DAGO MAKINA

Isilik dago makina  
ordu txiki hauetan  
altzairu zahar bat bezala.

Isilik dago makina  
hitzak nahi dizkiot lapurtu.

Zerbait esan nahi dut;  
baina isilik dago makina.

## DESIRATZEN DUGU

Bizitza zer den,  
ez dakigu:  
baina bizi gara  
gure gorputzaren barnean.  
Desiratzen dugu, gauza bat;  
maitatuak izatea,  
eremuak ez dira guretzako.  
Eremuetan bizi bagara ere,  
behar ditugu besteak,  
ura bezala.

## GELTOKIAN

Leihatilan txartela-saltzailea ikusten da  
ezkerreko hatz erakuslea  
ezkerreko sudur-zuloan sartuta duelarik  
egunkaria irakurtzen.

Berria ez den  
poemetako gizon herrenak  
geltokia gurutzatu du txistuka  
makilarekin erritmoa markatuz.

Atsedena du geltokiak  
eulien burrunba besterik  
ez da entzuten  
abuztuko arratsalde bero honetan.

Kanpoan trenbide hiletako bagoi batean  
karrilano bat dago lotan  
eta gertutik pasatzean  
emakume batek  
aitaren egin du.

## ZALDIA TROSTAN

Zelaian euria ari du  
belardia haizetan;  
iparreko haize hotza.  
Grisez tindatuak,  
gizona eta zaldia.  
Zaldia trostan  
gizona korrika;  
azpian mundua;  
poliki jira-biraka.

## HITZ HAUTSIAK

Atsedena bilatzen du poemak,  
hitz hautsiak  
iraun dezan  
irudi honetan:  
zaldi bat euri azpian  
lauhazka zelaian bakarrik,  
zaldizkorik gabe.

## MUNDUA ZABALA DA

Txokokeriatik haratago mundua zabala da

baina unibertsalak  
dira gertaerak

maitasuna  
adibidez

eta gorrotoa  
ere bai.

Nire  
txokotik  
begiratzen  
dut  
mundua

eta dakidan  
guztia  
bertan ikasi dut.

Ez naiz apenas  
mugitu  
baina ulertzen ditut  
atzerritarrak

sentiberak dira  
harremanetan.

## BEHARRAK NAHASI GINTUEN

Bihotzean  
oinazeak bezala,  
azkenik bizitzak  
aurkitzen du bidea;  
bizitzeko sortuak  
izan garelako.

Txirotasunean  
eta fortuna txarrean,  
atzera gehiegi  
begiratu gabe;  
galdutakoaren balantzea  
egin ondoren,  
gure prolearekin  
muinora igo eta,  
bizitzeko indarrez  
beteak  
abiatzen gara,  
lur berrietara.

## NEGUAN ELURRA

Lixapaperarekin  
lainoak lixatu;  
neguak elurra,  
hotz urdineko  
otso zakurra.  
Bide estuak  
ogi papurra.  
Gorosti tinkoeneko  
xori maltzurra.



## ZER DA POETA IZATEA?

Ez dut gogoko lehia, poesia ez da kirola. Nik ez dakit zer den poeta izatea. Poetak iruditzen zaizkit batzuetan dionisiotarrak, eta beste batzuetan apolotarrak. maiz iruditzen zaizkit; poetak artistak direla. Filosofoak ere bai askotan.

Nik ez dakit zer den poesia, baina gertatu egiten da, eta esaten dut: hau poesia da.

Zer da poeta izatea?

Misterio bat.

## Gabriel Korta, existitu [ez] zen olerkaria

“Harri hautsiak” izeneko poema-bilduma prestatzen ari zela ezagutu genuen Gabriel Korta Rekarte poeta. Egunero idazten zuen, horretara emana zegoen, pentsio txiki bat jasotzen baitzuen eta bizimodu apal batean, indarrak idaztera eta irakurtzera zuzentzen zituen.

Beti poesiari emana, hitz lauz apenas idatzi zuen. Auden poetaren euskal itzulpena astiro, oso astiro, irakurri zuen, eta benetan zirrara eragin zion. Era berean, Paul Eluard, Andre Breton, eta beste poeta batzuk gogo handiz irakurri zituen. Euskal poeten artean Joxean Artze, Xabier Lete, Gabriel Aresti aipatzen zituen, besteak beste. Joxean Artzerekin harremana izan zuen eta asko miresten zuen Kortak usurbildar olerkaria eta honen lana. Jakina, ez zen aipatutako egile horietara mugatzen, maiteak zituen klasikoak ere, Dao de Jing, Lao Zi-rena, eta Epikuro-ren lan guztiak, arretaz eta xehe irakurriak zeuzkan, esaterako. Aldiro irakurtzen zuen bere oso gustuko filosofoa ere, Friedrich Nietzsche, beti sakona iruditzen zitzaiona. Maiz itzultzen zen harengana, haren idatzietara.

Bere burua komunistatzat zeukan, gaztetan militantea izana zen, eta gizarte-auziaren kontzientzia handia zeukan. Gizartearen maila-banaketa argi zekusan: Lunpena, herri xehea, burgesia txikia eta burgesia handia. Baita ere, gizartean eragina duten beste eragileak aztertutak zituen: sexua, arraza, ideologia, adina...

“Estigma” hitza maiz aipatzen zuen, berarengan bizi izan baitzuen. Bizitzan zehar gaixotasuna izan zuen, denborarik gehienean medikamentuekin ongi kontrolatua, baina batzuetan osasun-etxean ingresatzera eraman zuena. Gaixotasunaren eraginez harreman asko aldatu zitzaizkion. “Psikiatrizatuen” taldean egon zen hainbat urtez, eta bazterkin kontzientzia izan zuen beti, pertsona markatua zela, eta jendeak bazter uzten zuela. Berak onartzen zuen, halere, bakartzeko joera zeukala, bere baitan egotekoa, eta aldi berean “nola behar ditudan besteak” zioen.

BADAGO HARITZ BAT/Bideak narama/nire mendira,/badago haritz bat;/lore txiki eta ezkurren artean,/bere gerizpea/ez da niretzako soilik./Oi! Nola behar ditudan besteak...

Bakartze eta gizarteratze horren arteko kontraesana garbi-garbi aitortzen zuen, bazekien kontraesankorra zela, denok garen bezala.

Gabriel Kortaren idazkera soila da, hitz zailik gabea, eta ulergarria. Irakurle batzuen aburuz, erabiltzen zituen gaiak tristeak ziren, eta idazlearen bizitzaren isla izanik, ez da harritzekoa ere. Gai mamitsuak erabiltzen zituen bere olerkietan, erroetara jotzen zuen, eta muintetik mintzo zitzaion munduari. Gaztetako lehen liburuak (Isiletik eta Okaranak 1986) Lur eta Susa argitaletxeekin atera zituen, hurrenez hurren, eta gero urte mordoxka argitaratu gabe egon ostean, bera autore-editore aritu zen lan guztietan. Bere pentsio txikitik pixkanaka aurrezten

zuen dirua eta behar adina biltzen zuenean liburua egiteko, aurrekontua eskatzen zuen inprimategian. Zarauzko Itxaropena inprimategira gustura egiten zuen itzulia; beti ongi hitz egiten zuen hango jendeaz. Ondoren liburua aurkeztu, elkarrizketa bakan batzuk egin eta kritikarien erantzunari itxaroten zion, egunkarietan.

Harri Hautsiak liburuan bi olerki musikaturik atera zituen (Bertsotxo batzuen hazkureak -ezkur aletxo bati- eta Mendi, lahar eta baso), partiturekin, Jon Goenagak eginak eta aurkezpenean pianoan emanak. Ondoren errezital batzuk etorri ziren. Jose Luis Padronen hitzaurrea dakar liburu horrek.

2017an “Maitasunaren indarra” liburua aurkeztu zuenean, Donostiako Garoa liburu-dendan, Itziar Navarro gitarra-jotzaileak lagundu zion errezitaldi hartan.

Hatsa elkartek, Senperen, antolatzen duen urteko poesia antologian parte hartzen zuen, oso gogo onez, eta beste olerkari batzuentzat bezala, Hatsa zen uharte bakarra, bakardade literarioaren itsasoan. Auxtin Zamorak gidatu eta artaz egindako liburuetan atsegin handiz parte hartzen zuen, eta ahal zuen heinean, urteko liburu aurkezpenera joaten saiatzen zen. Hatsa elkarteko kide asko ezagutu zituen eta horrek zabaldu zion bere harreman-sarea, besteak beste. Zumarragako ilunabar literarioan parte hartu zuen. Errenteriako Zintzilik Irratian hainbat saio egin zituen, poesia errezitatzeko bezala mahai-inguruan. Eta horri esker, grabaturik geratu dira, Gabrielen ahotsean, hainbat olerki eta kanta-hitz.

Neuk batzuetan, esan ohi nion, erdi-brometan: “Hiru zarete, hiru: Gabriel Aresti, Gabriel Celaya eta Gabriel Korta”. Eta irribarre egiten zuen. Baina existitu al zen benetan Gabriel Korta izeneko olerkaria? Gutxi batzuentzat asko existitu da Gabriel Korta, eta asko batzuentzat ez da existitu batere. Zorionez, hor dira haren liburuak, irakurri nahi dituenarentzat. Eta ondorengo belaunaldientzat.

Diot liburuaren aurkezpena Zintzilik Irratian egin zuenean eta olerkiak grabaturik utzi, honako sarrera hau egin zuen: Sinesten dut arima sentiberek badakitela non dagoen poesia eta non hautsa, apaletan eta altzarrietan utziko dut oraingoz denboraren menpe oraingoz azkenengoa. Nik poesia eskaini nahi dizuet. Bizitzak ematen dizkigu poemak, berri onak bezala, ez naiz azprietan gordeko xomorroak bezala. Poema hauek ditut zuei eskaintzeko. Aurrerantzean zuek izango zarete epaileak. Ez dago nire esku, zeren nire iritzia oso subjektiboa baita, jakin irakasle gehienek ez zutela nigan ikasminik sortu. Beraien errua izan zen. Ez da zilegi. Nik nire borondatez ikasi dut dakidana, dakidan gehiena, traumatikoak izan ziren nire ikasketak. (gauza bat da homosexualitatea onartzea eta bestea da traumatizatuta egotea asunto horrekin, praile nazkagarri batek ez ninduelako bakean uzten, sexu-gehiegikeriak jasan nituen. Traumatuak izan ziren neure ikasketak) Ni naiz izan nahi nuena, txarrerako eta onerako. Zorionezkoa ez zen poema bat egin nuen. Errekak eraman zuen musika eta guzti. Gero poesiari heldu nion, haur batek bere amaren eskuari heltzen dion bezala. Gaztea nintzen eta nire burua poeta bezala

autodeterminatu nuen (autodeterminatu herriak egiten dira, baina ematen badizute lizentzia poetikoa, poeta bezala autodeterminatu nuen neure burua). Beti notatxoak jasotzen nituen karpetatxoan. Gehiago zen sentitzen nuena idazten nuena baino. Beste askok bezala, garaiak baitziren ziren bezalakoak, klandestinoak izatea erabaki nuen. Nik nire karpetatxoa nirekin neraman beti, poesiaz betea. Eta azkenik, espero ez nuen bide triste batetik iritsi nintzen poeta bat bezala bizitzera. Hamazazpi urte nituenean poesia izan zen nire nortasun eta nire askatasun espazio propioa. Ez al da ba horrela? Ni, hasi nintzen kantak egiten, eta konturatu nintzen neuk kantatzea baino nahiago nuela beste batek kantatzea eta nik letrak egitea. Ez dakit zergatik hori buruan sartu zitzaidan eta nire musika egin nuen momentu horretan, utzi bakean, musika galdu egin nuen. Nik bakarrik ezin nituen kantak egin. Hori izan zen nire lehen poesia pausoa. Gero poesiari jarraitzeko, sakontzeko eta aurrera jarraitzeko. Hori nahi nuelako. Poesia arma bat dela esaten dute, ez desestimatu poetak, ez desestimatu inor, poesia aberastasuna da eta, karisma izatea, hori beste kontu bat da.

Azken urteotan Hurkoa elkarteak lagundu dio egunerokoa kudeatzen. Esan gabe doa senitartekoez pazientzia handiz lagundu diotela beti, ez baita izan erraza Gabrielelekiko harremana inorentzat. Ezta lagun izan garenontzat ere.

Oh, Gabriel, hire poemako siriarra bezala, denetatik, denengandik partitu haiz!

Gabrielen heriotzean, Zintzilik Irratiak, Errenteriakoak, bere webgunean, Diot audio-liburua entzuteko aukera ematen du, egileak bere ahotsez grabatua. Irrati librea, Gabriel bera bezala, hari batetik zintzilik, Gabriel bera bezala.

Hark oinordetzan utzi dizkigu liburu hauek: Isiletik (1980), Okaranak (1986), Harri hautsiak (2002), Laugarrenak lau –aurreko hiru liburuak gehi Testigantza- (2010), Diot (2013), Elurra galtza motzetan (2012), Maitasunaren indarra (2016).

Mila esker, Gabriel.

Iñaki Bastarrika-Izagirre  
kazetaria